


## AMERICA ETA TITANIC ITSASONTZIAK

Berriako albiste bat duzu jarraian. Testua irakurri ondoren, esan ezazu ideia hauek testuarekiko EGIA ala GEZURRA diren.

### “AZKENEAN BIDAIATU AHALKO DUT”

DATORREN ASTEAN BETEKO DIRA 96 URTE 'TITANIC' HONDORATU ZELA ETA BIDAIARIEN ARTEAN EZ ZEN FALTA EUSKAL ABIZENIK: RAMON ARTAGABEYTIA.



IRUNE LASA

Donostia

### AMERICA ONTZIA

*«Ezin duzu imajinatu, Enrique, telegrafoak nolako segurtasuna ematen duen. America hondoratu zenean, Montevideo pare-parean, inork ez zien erantzun laguntza eske piztutako argiei (...). Orain, telefonoarekin ontzian, ez da berriz halakorik gertatuko. Momentuan mundu guztiarekin komunikatu ahal izango gara».*

1912ko otsailaren 9an idatzi zion hori Ramon Artagaveytiak Argentinan zegoen bere iloba Enriqueri, Europatik. Aita santurtziarra zuen uruguaitar honek gorrotatu egiten zuen bidaiatzea. Gaztea zela, 31 urterekin, onik irten zen *America* baporearen hondoratzetik.

1871ko abenduaren 23tik 24rako gauean, La Plata zeharkatuz, Buenos Airestik Montevideoa zihoan *America* ontzian sutea piztu zen eta ordubete eskasean bitan zatitu eta hondoratu egin zen baporea. Informazio iturri bakoitzak kopuru ezberdinak ematen ditu. 200dik gora bidaiari omen zihoazen ontzian eta soilik 65 inguru salbatu omen ziren, beste ontzi batek jasota.

*«Zahartuta nago; gau hark aztarna ezabaezinak utzi zizkidan»*, idatzi zion 40

urte geroago Ramon Artagaveytiak bere ilobari. «*Hura bizi izan zutenek dakite zer izan zen (...) Lotan nengoen ni. 'Sua ontzian!' entzun nuen. Gaztetako bizkortasunarekin eta egoera zailetarako esperientziarekin, salbagerrikoa jantzi, korrika egin eta uretara jauzi egin nuen, ezer begiratu ezer galdetu gabe. Lehenengoa izan nintzen. Nirekin beste 65 lagun salbatu ziren. Zalantzatiek itxaron egin zuten eta modu izugarrian erreta hil ziren».*

Baina ezin La Plata behin eta berriz zeharkatzea saihestu, familiak Argentinan, Guaminin, etxaldea baitzuen eta Ramon zen haren administratzaile.

### **TITANIC, BENETAKO ITSASONTZI BAT**

Amesgaizto horiek apaltzea teknologia berriek lortu zuten, kablerik gabeko telegrafoak halako konfiantza bat eman baitzion Artagaveytiari, Atlantikoa zeharkatzera ausartzeko beste. 71 urterekin bidaiatzeaz gozaten hasi zen. Berlineraino joan zen iloba bat bisitatzera. Argentinara itzuli aurretik AEBetara joateko asmoa zuen. Eta «benetako itsasontzi bat» aukeratu zuen. «*Azkenean lasai bidaiatu ahal izango dut, eta, batez ere, lasai lo egin».*

*RMS Titanic*-era igo zen 1912ko apirilaren 10ean, Cherbourgen.

Trasatlantikoarekin txundituta zegoen Ramon Artagaveytia. Hala idatzi zion hurrengo egunean anaia Adolfori, 500 lagunentzako jangela, 260 metroko luzera eta beste hainbat zenbakitzar aipatuz. Atlantikoa zeharkatu aurretik, Cobh-en (garai hartan Queenstown, Irlanda) zuen azken geldialdia ontziak eta hura baliatu zuen gutuna bidaltzeko. «*Gelditzen ari dela nabaritzen dut eta lurra hurbil ikusten, Irlanda; beraz, gutun hau bukatzen dut guztiok nire oroitzapenetan utziz. Besarkadak. Zure anaia, Ramon».* Gutunaren oinean idatzi zuen gero Adolfo Artagaveytiak: «*Hiru egunera, 1912ko apirilaren 14an, Titanic hondoratu egin zen eta Ramon itota hil.*»

### **22. GORPUA:**

White Star Line *Titanic*-en ontzi enpresak erreskaterako bidali zuen *Mackay-Bennett* zamaontziak uretatik jasotako 22. gorpua Ramon Artagaveytiarena zela ondorioztatu zen. Hildakoen artean zaharrena zen, 71 urte eta bederatzi hilabeterekin.

Artagaveytia ezkongabe eta ondorengo gabe hil zen. Dirudienez, familian beti kontatu izan da haien osabak salbatxalupan bere tokia utzi ziola 20 urteko neska argentinari bati.

		EGIA	GEZURRA
1.	Ramon Artagaveytiak telegrafoari esker <i>America</i> ontzian gertatutakoa berriz gertatuko ez zela uste zuen.		
2.	<i>America</i> baporean lotan zihoala itsasontziak su hartu, bere burua uretara bota eta horri esker salbatu zen.		
3.	<i>America</i> ontzia erretzearen ondorioz desagertu zen.		
4.	Nahiz eta urteekin bidaiatzeaz gozaten hasi, Ramon Artagaveytia kezkatuta zegoen ez baitzekien Titanic-en lasai bidaiatu eta lo egin ahal izango zuen.		
5.	Irlandatik familiari bidalitako gutunean trasatlantikoan izututa zegoela azaltzen zuen.		
6.	Dokumentuen arabera Ramon Artagaveytia 71 urterekin hil zen, neska argentinar bati salbatxalupan lekua utzi ziolako.		
7.	Ez dago batere argi 22. gorpua Ramon Artagaveytiarena den ala ez.		

**Erantzunak:**

**Respostes:**

1. EGIA
2. EGIA
3. GEZURRA
4. GEZURRA
5. GEZURRA
6. EGIA
7. GEZURRA